

EGI gazte erakundearen kanpaldia Zestoan asteburuan.

Bekak

Film luzeetarako gidioak egiteko laguntzak ■ Zinemarako gidioak egiteko diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Espainiako Kultura eta Hezkuntza Ministerioak. Edozeinek egin dezake eskaria. Laguntza 2.000.000 pezetakoa izango da, eta eskaerak apirilaren 2a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago Espainiako Buletin Ofizialean aurki daiteke.

Bideoa ■ Nafarroa. Film laburrak eta bideo lanak egiteko laguntzak emateko bekak abian jarri ditu Nafarroako Gobernuak. Filmek 35 mm-tan edo bideoan eginak izan behar dute eta gehienez 30 minutukoak. Eskaerak hilaren 31 baino lehen egin behar dira. 99-02-17ko Nafarroako Buletinean dago informazioa.

Ikastaroak

Bideoa-Dantza tailerra ■ Loiola (Donostia). Bideo esperientzia duten eta mugimendua eta dantza interesatzen zaien bideo egileentzako ikastaroa da hau. Inigo Garridok emango du, Oak's Bark Aims-eko zuzendari artistikoak. Alde praktikoa eta teorikoa izango ditu tailerrak, eta apirilaren 12tik 25era iraungo du, astelehenetik ostiralera, Artelekun. Tailerraren iraupena 45 ordukoa da eta 18.500 pezeta kostatzen da (740 libera inguru). Izen ematea, ondoko zenbakiotan: 943 280178 edo 943 493440 (adeshoras@hotmail.com)

Erakusketak

Argazkiak ■ Bilbo. Bilboko Espacio de los Mundos tabernan, Luis Mirandaren argazkiak izango



Egi Eguna Zestoan

Egi Eguna ospatuko dute Zestoan asteburu honetan Hala, bihar 20:00etan Ikurrinaren igorarekin emango diote hasiera kanpaldiari. 23:00etan, berriz, dantzaldia egongo da Basakabi taldearekin.

Larunbat goizean paella erraldoia prestatu eta kale antzerkia egongo da. Arratsaldean, berriz, hitzaldiak eskainiko dituzte 17:00etatik aurrera. Kurdistan buruzkoa izango da lehen hitzaldia eta Faru, Kurdoen Asanbladako ordezkaria eta Xabier Ormaetxea legebiltzarkidea izango dira hizlariak. Beranduago Joseba Egibarrek eta Juan Mari Juaristik *Euskal herriko egungo egoera politikoa* hitzaldia eskainiko dute. Gauean Cover Company taldearen kontzertua izango da. Igandeko ekitaldi politikoarekin itxiko dute kanpaldia. Xabier Arzalluz eta Joseba Egibar izango dira bertan.

dira ikusgai apirilaren 6a bitartean. *Natureza oculta* (Natura ezkutua) da erakusketaren izenburua.

Margoa ■ Irun. Santi Almandoz margolariaren lanak ikusgai jarri dituzte Kabigorri Ateneoan. Martxoaren 31 bitartean zabalik izango da erakusketa.

Jardunaldiak

Euskal Gatazka Nazionala ■ Irun. Kabigorri Ateneoak jardunaldiak antolatu ditu larunbat honetarako. Hala, etzi, martxoak 27an, hitzaldiak izango dira Javier Villanueva idazle eta ikerlariaren

eskutik. Hiru hitzaldi izango dira goizeko 10etatik aurrera. Lehena *Protagonista nagusiak* izeneko hitzaldia. Bigarrena, *Eguno euskal gatazkari buruzko kartografia*, eta hirugarrena, *Euskal eraikuntza nazionala*.

Hitzaldiak

Emakumea mitologian ■ Bilbo. Egunotan Bilboko Likiniano gunean egiten ari den *Goi-andereen itzulia* zikloaren barruan, Anuntzi Aranek *Emakumeak euskal mitologian* izeneko hitzaldia eskainiko du gaur, iluntzeko 20:00etan. **Komando Autonomoak ■ Zaldibar.**

DDTren Durangaldeko taldearen aurkezpena egiten ari dira egunotan Zaldibarren, eta horren barruan *Komando autonomoak: una historia anticapitalista* liburua aurkeztuko dute bihar, arratsaldeko 19:30etan, Katuetxen.

Hitzorduak

Marrazki-ipuina kontaketa ■ Usurbil. Korrika 11ren emanaldien barruan, Ixabel Agirresarobek eta Egunkariako Mattin komikigileak Marrazki-ipuina kontaketa eskainiko dute gaur Usurbilgo Txiriboga tabernan, gaueko 22:00etan.

Kultur errota ■ Elgoibar. Kultur Errota egitasmoaren barruan, hurrengo larunbatean, hilak 27, Iñaki Salvador, Jexus Artze eta Kirikoketa taldea Elgoibarko kultur etxeko sotoan izango dira. Iñaki Salvadorrek pianoarekin eta Kirikoketa taldeak txalapartarekin, euskal musika tradiziionalaren irakurketa libre eskainiko dute. Ondoren, Mai Gorostia ga antzezleak, berriz, *Euskaldun berri baten bizipenak* monologoa eskainiko du. Emanaldia 22:30etan hasiko da eta 500 pezeta balioko du (kafea, pastak eta kopatxoa barne).

Kubari buruzko bideo-dokumentala

Bilbo. *Cuba en trova* izeneko bideo-dokumentalaren aurkezpena egingo dute Joseba Maciassek eta Juanjo Elordik bihar, ostirala, arratsaldeko 20:00etan Bilboko Hikaateneoan (Iberri kalea, 1). Ondoren musika, jantzi edanak eta giro kubatarra izango dira.

Bertso-saioak

Bertso trama ■ Soraluze. Bertso trama izeneko saioa gero eta toki gehiagotara zabaltzen ari dira Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia eta Josu Goikoetxea gidolaria. Gaur bertan Soraluzeko Gaztelupe tabernan aurkeztuko dute, gaueko 22:00etan.

Mahai-inguruak

Disidenteak betiko ■ Iruñea. Disidenteak betiko fanzinearen arduradunek mahai-ingurua prestatu dute gaur arratsalderako. Jakue Pascual soziologoaz gain, Esan Ozenkiko eta DDT-Banaketak-eko kideek hartuko dute parte. Mahai-ingurua Txantreako Auzotegin izango da 19:30etan.

Internet en irristatzen

Kontrainformazioa sarean

Berripaper alternatibo asko Interneten ere agertzen dira

Sarean dauden komunikabide handien ondoan bada komunikabide alternatiborik. Bertatik kanpo gertatzen den moduan, baliabide urriagoak eta hedapen murriztagoa dute buletin edo berripaper hauek, baina sarean argitaratzeak bere abantailak baditu: printzipioz antzeko hedapena izan dezakete, mundu osokoa, eta ale kopuru mugagabea. Banaketan ere ez da lan handia egin behar, paperezko buletinak direnean ez bezala, eta informazioa jasotzeko e-posta bide erraza da.

Berripaper hauek ideia libertarioekin bat datoz gehienetan, eta horregatik in-

formazioan ere eredu horizontala ezartzearen aldekoak dira. UPA agentziak Madrilén editatzen duen *Molotov* buletinaren azalpenak dioenez, informazioa norabide bitan mugitzea datza masa komunikabide handiekiko ezberdintasuna.

Molotov-en, besteak beste, lan eta gizarte gaiak, antifaxismoa, kartzelak, mobilizazioak eta deialdiak agertzen dira. Aragoi aldetik, *Aragon Info* argitaratzen dute, oso aktiboa. Asturiasen *Llar*

eta Katalunian *Per Tots Els Mitjans* dauka, baina ez daude azken aldion oso eguneratuta. Bartzelonako *Usurpa*-k okupen gaineko berriak biltzen ditu. Gurean *Eztanda*-ren gunea eta *Ekintza Zuzena* aldizkariarena aipa daitezke.



Helbideak interesgarriak:

- **Boletín Molotov**
<http://www.nodo50.org/lucha-autonoma/molohome.htm>
- **Aragon info**
<http://www.tao.ca/~csl/index.html>
- **Usurpa**
<http://personal.redestb.es/gurm/anyach/usurpa.htm>
- **Eztanda**
<http://www.geocities.com/CapitolHill/3793/>
- **Ekintza zuzena**
<http://personal.redestb.es/cbarona/inicio.html>
- **Llar Asturias**
<http://www.uv.es/~jordil/llar>
- **Per tots els mitjans**
<http://www.fightgrafics.com/ptem/>

jabi zabala

irristatzen@egunkaria.jalgi.com